

ttipi-ttapa

1991.eko Irailak 12

69. zenbakia


dohain banatzen da

AKELARRE - 91



Manex Bergara:

«EUSKARAK BATZEN GAITU»



AKELARRE 91 - EGITARAUA

IRAILAK 14, Etxalarren

Arratseko 9etan, Herri Afaria. Bertsolariak,
Txaranga, Erramun Martikorena,
Dantzaldia IZAN taldearekin

IRAILAK 15, Igandea

Goizean LARUNera ibilaldia
Eguerdian Xardina jatea eta trikitilariak

NON - ZER

-
- 4 AGENDA** Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.
-
- 7 HONTAZ ETA HARTAZ**
-
- 8 IRAKURLEAK MINTZO**
-
- 9/23 HERRIZ HERRI**
Herrietako berriak: Bortzirriak, Malerreka, Sunbilla, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta...
-
- 24 ERREPORTAIA:** "Hastear daude helduen heziketa okupazionalerako ikastaroak"
Joxemanuel Irigoien
-
- 26 ELKARRIZKETA:** "Gure artean mugarik ez da" dio Manex Bergara saratarrak Akelarre-91 ekitaldia dela eta egindako solasaldian.
Olhain Elkartekoak eta Patxi Petrirena
-
- 28 KIROLAK:** "Eskualdeko igeriketa txapelketak jokatu ziren Beran"
Roman Harribilaga
-
- 30 MERKATU TTIKIA**
-

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85

Tirada: 4.600 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1

31780 BERA

Tfnoa.: 63 11 88

Erredakzio arduraduna: Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karmele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Juainas Paul Arzak, Patxi Larretxea, Pello Astiz **Ale honetan parte hartu dute:** R. Harribilaga, Oskar Txoperena, P. Apezetxea, Jon Larretxea, Txema Aldabe, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Jon, Arantxa, Koro Irazoki, Margari, Sara, Natalia, Txema Urrotz, J. Igarabide, Antton, Patxi Petrirena, Olhain Elkartea, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi, Goiko Argazkiak, Mena Argazkiak, Zaldua Argazkiak, Mattari, Fermin Alzuguren, AOT eta Enbido-k. **Argitaratzailea:** *ttipi-ttapa*. **Laguntzaileak:** Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurlaritza... **Inprimategia:** Jomisa (Irun)

ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

Beharrezko telefonoak

SOS Nafarroa	088
OSASUN ZENTRUAK	
Elizondo.....	452367 / 580235
Doneztebe	450300
Lesaka.....	637428 / 637336
Leitza	510248 / 510573
KONTSULTAK	
Arizkun	453039
Gartzain	580451
Oronotz-Mugaire	592024
Ituren	450183
Sunbilla.....	450283
Goizueta	514067
Igantzi	637755
Arantza	634131
Bera.....	630929 / 630036
Etxalar.....	635105
Urdazubi.....	599130
ANBULATORIOAK	
Irun	630264/621106
OSPITALEAK	
Irungo ospitalea	614600
Nafarroako ospitalea.....	102100
SSko urgentzi zerbitzua	246750
Virgen del Camino	
erresidentzia	262700
Gurutze Gorria	226404
ANBULANTZIAK	
Oitz	450242/450342
DYA	
Lesaka (larrialdiak).....	(943)464622
Elizondo (larrialdiak).....	171717
FUNERARIA	
Lesaka.....	637404
SUHILTZAILEAK	
Oronotz-Mugaire	592044
GARRAIOAK	
Bidasoitarra	630279
Baztanesa	580129
Leitzarar	515018
HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:	
Elizondo	580730
Lesaka	637154
Bera	630261
ABERIAK:	
Iberduero	450335/450336

Botikak

► **Irailaren 14-15ean**, Lesaka, Ituren eta F. Iturralde (Elizondo).

► **Irailaren 21-22an** Etxalar, Sunbilla eta F. Lezaun (Elizondo).

Ikastaroak

► **LESAKA**, Udal Musika Eskolan 1991-92 ikasturterako **apuntatzeko epea**: Irailaren 10etik 21era.

Lekua: Irain Eskola.

Ordua: 11etatik letara.

Deialdiak

► **ARANTZA**, Irailaren 12an, arratsaldeko 5etan, Arantzako Euskara Batzordearen bilera.

► **ARANTZA**, Irailaren 19an, arratsaldeko 6etan, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen Aholkularitza batzordearen bilera.

Jaialdia k

► **AKELARRE-91**, Irailaren 14ean, Herri Afaria eta IZAN Etxalarren. 15ean, Larun mendira ibilaldia eta erromeria.

Ikastaroak

► **EPA** edo helduen heziketa okupazionalako ikastaroak

Apuntatzeko epea: Irailaren 15a arte.

Izen emateko lekua: Herriko Etxeetan.

Informazioa: Herriko Etxeetan eta Berako Lanbide Eskolako 630411 eta 630450 telefono zenbakietan (Andoni Errandonea). Gutieneko adina, 16urte eta taldea osatzeko gutenez 15 pertsona behar harko dira.

Bota bertsoa**Jon Eskudero**

Gaia: Gure ibai eta basoetako zaborra (II)

Doinua: Hamarreko haundia ("Xabier Amurizarena")

Es dut esango naizenikan ni
mutil jatorra ta fiña
baina hau hola ikusita nik
daukat bihotzean miña
gure alderdi guzia dago
benetan oso zikiña
mundu honetan saiatuz gero
ezer ez dago eziña
denon artean garbitutzeko
egin zagun alegiña

Pena ematen didala niri
hau holaxe ikustea
konpontzez gero behar dugu guk
sasoia daukan jendea
bakoitzak ordun jarri dezala
dadukan borondatea
hoberena da egunen baten
denok lanean hastea
elkarturikan garbi dezagun
goitik bera Urumea

AGENDA

Bestak

► **BERA**, Irailaren 14ean eta 15ean ospatuko dira **Illekuetako bestak**. Suziria eguerdian, tiro txapelketa, txirrindulari laisterketa, Gure Txokoako dantzarien emanaldia eta dantzaldiak larunbatean, eta meza, haur jokoak, herri bazkaria, herri kirolak eta dantzaldiak igandean.

► **ITUREN**, Irailaren 21ean, **Joaldunen Eguna**. Goizez, trikitalariak, bertsolariak eta aizkora apostua: Mindegia-J. M. Fagoaga, Olasagasti-Lazaro Erregerenaren aurka.

Bazkalondoan, bertsoak eta Christian Laborda-rekin dantzaldia.

Arratsalde eta gauz dantzaldia IZOTZ taldearekin.

Bazkarirako txartelak ohizko lekuetan aurkitzen dira salgai.

Gastronomia

LEGATZ PASTELA

Osagaiak

4 lagunendako:

750 gr. legatz, 6 arraultze, kilo erdi bat tomate eta 170 gr. esnegain edo nata.

Lehenik legatza egosi eta hezur eta azalez garbitu.



Fernando Lazkanok emana
EUSKALDUNA Jatetxea - BERA

Arraultzeak batitu eta pauptutako legatzaren gai-

nean bota eta nahasi.

Tomatea egin eta gaine-koari gehitu esnegainarekin batera. Guzia nahasi eta baiñomarian sartzeko, moldea prestatu gurin pixka batekin igurtzita aintzinetik. Masa moldera bota eta la-bean sartu, baiñomarian, ordu batez eta 200 gradu-tan.

Moldetik atera eta jateko prest.

Baserriko feria



► ZERRIKIA

•Zerrikumea (20 kilokoak): ⁴⁷⁰⁰5.200pzta. **Zerri gizona** (95-100): ¹⁵²160 pzta./kilo **Urdamak**: 60-80pzta./kilo bizirik.

► BEHIKIA

•Aretze gizenak:

Idixkoak: Pzta/kg. Kanal
Extra.....540 ⁵⁵⁰
1.koa.....520 ⁵⁷⁵
2.koa.....480 =

Urruxak: Pzta/Kg. Kanal
Extra.....550 ⁵⁷⁰
1.koa.....510 ⁵⁴⁰
2.koa.....480 ⁵⁰⁰
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

Baztango aretzea: 625 =
pzta/kg. Kanal.

•Behi zaharrak:

Behi nabar gizona: 300 =
Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri

³⁷⁰ona: 360 Pzta /Kg. Kanal.

•Aretze ttikiak

(15 egun inguru): ^{13.000}

Nabarrak: urruxak 18.000 eta idixkoak 22.000 Pzta. ¹⁵⁰⁰

Mestizoak: urruxak 25.000 = eta idixkoak 34.000 pzta

^{Bidasoa: 26 = 610 pzta}

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa



MALDAERREKA S.A.
«La Suiza»

Bittiria karrika - Tfnoa: 637404- LESAKA

Aseguro
mota
guziak

MOBLEAK
METS

Bidasoa 45, Tfnoa: 63 05 37 - BERA

SUKALDEAK
LOGELAK
EGONGELAK

Deitu eta neurtzera
joanen gara.
Konpromisorik gabe!!

LEGARRA

PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIAK

Legarrea 9, Tfnoa: 637030 LESAKA

GRUPO  ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63



11 galdera Ilabur

Zinema



► **Mixel Gerendiain**
Sarako ostalaria

- Zer nahiago, tabernan tragaperrak ala egunkaria? Egunkaria.
- Egotekotan, barra barrenean ala kanpoan? Biak, baino lana egiteko barrenean
- Musika klasikoa ala rock-a? Rock-a.
- Udako jendea ala negukoa? Negukoa.
- Arno gorria ala Ricard-a? Arno gorria.
- Tabernak ixtera behartzen duen ordurik bai ala ez? Ez.
- Hemengo poteoa ala mugaz bertze aldekoa? Biak, bakoitza bere momentuan.
- Emakumezkoen tertulia ala gizonzkoena? Gizonzkoena.
- Oporretan, mendialdera ala kostaldera? Mendialdera.
- Bezero gazteak ala helduak? Gazteak nahiago.
- Bezero ixilak ala berritsuak? Ixilak nahiago. Kantuz aritzen direnak ere bai baina builarik gabe.

► **The Commitments**
Alan Parker
USA 1991

Aspaldiko urtetan ez dute pasa izanen aurtengo udaran haina filma txar eta lotsagarri gure pantailetan, ia denak iparamerikarrak eta noizean behin espainiar bat ere.

Alan Parkerren "The Commitments" honek pixka bat salbatzen du momentuko egoera, baina ez aski. Hiru garai nagusi izan ditu zuzendari honek, lehena "Fama" filma musikalarekin, telebistan emandako serie baten arakasta ikusi



Irlandar musika ugari Alan Parkerren azken filmean

ondoren. Bigarrena, "Expreso de medianoche" Turkian egindako drama sikologikoak pantailetan denbora luzez iraun zuen. Hirugarrena, Pink Floyd-en "The Wall" musikal ezaguna eta bere karreran ezagunena, egitan zaila baitzen

lan musikal hau zainera ongi adaptatzea. Lortu zuen eta betirako gelditu da musikal rock klasiko hobereana bezala. "The Commitments" egitera Dublinera joan zen Parker; handik zabaldu bait dira musika mota hoberenak azkeneko hamabortz

urte hauetan. 1.500 musikari entzun ondoren, hamar talderekin oinarritu du filma hau, 24 tema, gehienak soul kutsuarekin. Baliteke, zorionez, oraingoan ere Irlandatik berpiztea musika berria.

MARIANO

AFRO REGGAE ZOUK

ZAGIT

Taberna. JARAUTA, 98. IRUÑEA. Tfnoa: 22 14 40

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa
Altzate 28 - BERA

LORADENDA, bitxikeriak, opariak, eskulangintza

LORA DENDA

TXIRULA LESAKA

Bitiria

Bittiria, Tfnoa: 62 75 42
LESAKA

LUR APAL

MEKANOTERAPIA ZENTROA


BIZKARRA
ARTRITISA
ZAINAK
STRESA

Plaza Zaharra 7, Tfnoa:
637011 LESAKA

HONTAZ ETA HARTAZ




Karrikak apaindu bidenabar, bide bazterreko losak harrizko pareta batetaz ordezkatu dira. Halaxe gertatu da, kasu hone-tan, Zugarramurdin. Politago? Itsusiago?



Garai batean, argazkian ageri dena ikustea ez zen, seguru gaude, bertze munduko zerbait ikustea izanen. Beharbada gaur egun ere ez da horrela, baina, seguru egon ez dela nonnahi ikusten den instantanea. Egiazko astakumea, lau hankakoa, alajaina!

“Duzuna eman, eman euskara”

Horixe izanen da Baztan, Malerreka, Bertizarana eta Bortzirietan burutuko den transmisio kanpainaren lelo nagusia



“Hilabete honen erdialdean hasi eta urriaren erdialderarte iraunen duen kanpaina honen ikusmiran, gurasoak daude batez ere”, halaxe adierazi ziguten behintzat Baztan, Malerreka eta bortzirietako Udal Euskara Zerbitzuetako teknikariek. *“Bide horretan, euskaldunak diren eta ez diren gurasoak, guziak, kontutan hartuak daude”.* Hau da, alde batetik eus-

kaldunak direnei, beren seme-alabei euskara transmititzearen garrantziaz ohartu nahi zaie eta bidenabar, guraso hauen euskara ezagupenak zabaltzea mesedegarri izanen zaiela ohartaraziz (seme-alabei ikasken laguntzeko...).

Euskaldunak ez direnei, berriz, euskara ikasteak eskeini ahal dizkien abantailatz ohartarazi nahi zaie, bidenabar, euskara ikastera bultzatuz.

Kanpainaren nondik-norakoak

Karriketan, ostatuetan, eskoletan... jarriko diren kartel koloretsuek izanen dira batipat, kanpainaren berri emanen duten lehenak. Halere, kanpaina ez da bakarrik horretara mugatuko. Gure herrietan ezagunak ditugun pertsonak ere, hortxe eskeiniko dute beraien laguntza kanpainaren helburuekin bat agertuz.

INFORMAZIOA:

- ☞ Nominak
- ☞ Aseguro Sozialak
- ☞ Lan-kontratu bonifikatuak
- ☞ Enpresa berrien sortzea
- ☞ Diru-laguntzak
- ☞ Errenta Deklarazioak
- ☞ Kontabilitateak

ARTEKARI S.L.

ASESORIA FISKAL ETA LABORALA

KONTSULTAK, AINTZINETIK ORDUA ESKATUZ

LESAKA:

- Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
- Non: MALDAERREKA S.A., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L, Tfnoa: 17 55 40
- Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.



BAZTANDARREN BILTZARRAREN BAZKARIA ZELA ETA

Baztandarren Biltzarraren eguna ospatu zenetik egunak pasatu baldin badira ere, gure protesta errebista honetan agertu nahi genuke bazkarian izandako gora-beherak direla eta.

Gure kasuan, besta zela eta aprobetxatuz, Gipuzkoatik etorritako zortzi gonbidatu eta gu geu, guzira hamar, Mer-

katuko zelaian urtero antolatzen den bazkarira gatea erabaki genuen.

Bazkarirako txartelengatik 16.000 pza. ordaindu ondoren, (hau da, 1.600 bakoitzengatik) disgusto ederra hartu genuen, denbora azkarki espetu ondotik, tortilla pin-txo bana serbitu eta bazkaltzeko gehiagorik ez zela erran zigutenean.

Gertatutakoarekin lotsaturik eta postreari esperatu gabe, Jatetxe bateta-

ra joan behar izan genuen, bainan hemen ere ezin izan genuen behar bezala bazkaldu, izan ere berandu baitzen ordurako.

Guzi hau ikusita, gauza bat eskatu nahi genieke antolatzaileei: lanean aritu ziren jende guziei ordain gisa afaria ematen dietenean, oroit daitezela baiterre txartela ordaindu arren bazkaltzerik izan ez zuten jende guziaz (ez bait dira hain guti guri gertatu zaigun gauza bera

gertatu zaienak).

Penagarria da honelako desastreak gertatzea, izan ere horrelakoekin, hurrego urteetarako aunitz galtzen baitu besta eder honek.



Baztango
senar-emazte bat

Oharra

Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi

duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NANren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, erredakzioak bere esku izanendu horretarako eskubidea.

Errekalde ostatua

Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630529 - BERA



S. Semper

Nekazal Tresneria

Salmenta eta konponketa tailerra

Ergoien auzoa, Tf.: (943) 490619 - OIARTZUN
BERAn, Agerra Industrialdean

ZALAIN JATETXEA

Eguneko menua eta karta

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06

BERA

ETXEGARAI

BIDEO KLUBA

Telebista eta Bideoak
Antena kolektiboak eta
banakakoak
Konponketa tailerra

Eztegara 4, Tfnoa: 63 05 70 - BERA



EUSKALDUNA JATETXEA

Tfnoa.: 63 03 92

SAROB okindegia



SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA



- Diskoak,
- Metodoak,
- Musika-Tresnak,
- HI-FI soinua,
- Soinu Profesionala,
- Ekipoen Alokairua...

Beratar margolarien erakusketa zabalik dago Urruñan

Hilaren 15era arte egonen da ikusgai "Landaberria" erakustokian

ROMAN HARRIBILAGA

Abuztuaren 30eko arratsaldean eta besta giroan, Urruñako "Landaberria" erakustokian zabaldua geratu zen Berako Juan Aldazabal, Jesus eta Manuel Sanz, Juan Carlos Olaetxea, Jose Prieto eta Heliodoro Ortego margolarien erakusketa. Berau, datorren irailaren 15era arte egonen da ikusgai, goizeko 10,30etatik arratsaldeko 7,30ak arte, astelehen goizez ezik.

Bi herrietako erakunde, elkarte eta alderdi politikoaren ordezkariak azaldu ziren egintzara. Aurretik, Berako eta Hendaiaiko "Entzun" abesbatzek ihardun zuten euskal kantak abestuz, bakarka lehenik eta elkarrekin bukatuz.

Urruñ-Bera harremanak

Egintza hau Urruñ eta Bera artean garatzen hasi berri den harreman egitarauaren barruan kokatzen da, beren biztanlegoaren elkarezagupena eta euskal kultura bultzatu asmoz. Era berean, aurrerantzean ha-



"Landaberria" erakustokian daude ikusgai lanak.



Haize beroko sistema erabiliko da kalefakzioarako

rreman hauek finkatu eta gero, Ipar Euskal Herriko bertze herriekin harremanak sortzeko helburua adierazi dute bi herrietako batzorde antolatzaileek.

Parrokiako berogailua

Haize beroko sistema erabiliko da orain arteko gasoleozko instalazioak ematen zituen 125.000 kal/

or. 400.000 kalorietara igotzeko. Neurri ezberdineko tuboak jarriko dira, horretarako elizako zola altxatu delarik zenbait tokitan. Aurrekontua, 4 milioi ingurukoa da eta 3 astetan bukatzea espero da.

Kultur kartelak euskaraz

Azken urteotako ohiturari jarraituz hemendik aitzinera ere kultur kartelak euskara hutsez argitaratuko dira.

Erabakia Udalbatzak hartu du berriki, EA eta HBren aldeko 6 botoekin eta Herrialde taldearen aurkako 5ekin. Gaztelera ere sartzeko proposamena M^a Carmen Telletxea zinegotziak aurkeztu zuen.

Joxelu Daroca-ra

Carabanchel-en aurkitzen zen Jose Luis Etxeberria preso politiko beratarra Darocako kartzelara eramane zuten Uztailaren 29an. Hona hemen helbidea: J. L. Etxeberria Lekuona - Centro Penitenciario Cumplimiento 50366/ Daroca/Zaragoza.

B RADIO BIDASOA expert
Kanttonberri 1, Tfnoa: 63 03 77
BERA

**3 urtetarako garantia eta
36 hilabete ordaintzeko.
Nork eskeintzen du gehiago?**

LESACA

Herritik Oiartzunerako bidea moldatzen hasi dira

16 kilometrotan egin beharreko obrak 75,5 milioitako aurrekontua du

AITOR AROZENA

Lesaka eta Oiartzun batzen dituen NA-4000 errepidea moldatzeko obrak hasiak dira jadanik. Nafarroako Gobernuak, Obra Publikoak, Garraio eta Komunikabideak sailko kontseilaria den Antonio Aragonek lan hauek "Asfaltos de Biurrun S.A.", "Pavimentos de Navarra S.A." eta "Industrias Asfálticas de Navarra S.A."ri adjudikatu dielarik

Hamasei kilometrotan eginen diren lanek, errepidearen asfaltatzea, kuneta eta artzenaren garbitzea, barrera paratzea eta seinalizazioa, horizontala zein bertikala izanen dira eta 75 milioi t'erdiko aurrekontua dute.

Gogoratu behar da bide honek 25 urte inguru zera-mazkiela moldatu gabe eta Udalak iazko Azaroan



Lesaka eta Oiartzun batzen diturn NA-4000 errepidearen moldaketari ekin zaio 25 urte obrarik egin gabe pasatu ondoren.

egindako plenoan, Nafarroako Gobernuari Lesakako zubitik Aritxulegiko tunelaren arteko bidearen obrak lehenbaitlehen hastea eskatu ziola, "bere estutasuna eta kurbakopuruarengatik arriskutsua bait da errepide hau". Orduan ezin izan zen obra egin, Laminaciones eta Txantreko kamioiak

ibiltzen bait ziren bertatik.

"San Fermin" elkartearen Eguna

"San Fermin" herriko Jubilatuta eta pentsionisten elkarteak bere eguna ospatu zuen hilaren lehen. Goizean gaiteroak aritu ziren eta eguerdian bazkaria eta dantzaldia izan zuten Koxkontan. Tartean, hala ere,

elkartearen partaide izan ziren Miguel Leiza eta Teodoro Miralles-en omezez meza izan zuten, bertan herriko abesbatzak parte hartu zuelarik. Larunbatean, Irain Dantza taldeak dantza ikuskizun ederra eskeini zuen plazan, nahiz eta eguraldiak ez lagundu.

□ **Kanposantua** edo hilerria haunditzeko obrak hasiak dira jadanik. Eskabadora sartu da inguruko lur komunaletan eta hemendik aintzinerara Lorategi S.A.L. enpresa adjudikatzaileak lau hilabete izanen ditu 54 milioi inguruko obra hau bukatzeko.

□ **Udal** musika eskolan matrikulako epea Irailaren 10etik 21era izango da, Irain eskolan, goizeko 11etatik 1etara.

□ **EPA** ikastaroetan apuntatzeko epea hilaren 15ean bukatuko da.

ARRANO

OSTATUA
Legarrea - **LESACA**

IRUBIDE
OSTATUA
ERRETEGIA
Tfnoa.: 63 71 27 **LESACA**

XATURETXEA
FONDA
Tfnoa.: 63 70 27 **LESACA**

★ **KIXKUR** ★
ILEAPAINDEGIA
Bittiria Tfnoa.: 637429 - **LESACA**

GOIZUETA
KIROLAK
Kirolak
Mendirako artikuluak
Behoko Plaza 10 **LESACA**

Udalbatzaren komisio berriak osatu ziren

Denetara 72 milioitako gastuak eta 79ko sarrerak izan ziren iaz

PELLO APEZETXEA

Maiatzeko hauteskundeek herriko Udalbatza berri eta, honek bere lehen bileran komisioak antolatu ditu. Hirigintza edo urbanismorako (bideak, ura, saneamendua, kanpo-ko argia, kanposantua), X. Ansalas eta B. Genua. Nekazaritza, Hazienda-abelgintza eta menditarako, J. M. Arburua, G. Arburua eta J. M. Pikabea. Kultura, kirola eta gizarte ongizate-rako, Arantxa Mikelesto-rena eta G. Arburua. Diru kontutarako, X. Ansalas eta B. Genua. Alkateordea, X. Ansalas. Bortzirietako Gi-zarte Zerbitzuren Manko-munitaterako ordezkaria, M. M. Irigoien. Hondaki-



Korreetz igortzearen gastua haunditu dutelako, eskuz-esku banatzen da TTUPI-TTAPA herrian. Haurrek egiten dute gehiena, baina dendariak eta bertze zenbait jendeak ere laguntzen du eginkizun horretan, borondate estimagarria erakutsiz.

nen Mankomunitaterako, M. M. Irigoien. Euskara Mankomunitaterako, A. Mikelestorena. Eskola Batzorderako, A. Mikelestorena. Osasun Kontseilu-

rako, B. Genua. Etxalarko Okindegi edo Panificadoren administrazio kontseilurako, M. M. Irigoien, G. Arburua eta J. M. Pikabea.

Sugeak bi haurri hautsiki egin

Uda honetan gertatua da, nexka bati lehenbizi eta mutikoari bertze egunez. Larriturik medikutara ere eramán zituzten.

Hori dela-ta, sugeak ugaritzen ari direla aditzen da jende artean. Ekologistek sugekumeak menditan bota omen dituztelaren zurrumurrua ere zabaldu da. Honek, ordea, norbaiten burutazioaren itxura bertzerik ez du. Iruñera, ehiza eta naturaren zainketako Sailera deitu dugu, eta handik inoiz ez dutela sugerik menditan bota erran digute eta ez dute inolaz ere uste ekologista talderen batek horrelakorik egin izanen duenik.

IGANTZI

Herriko uraren arazoa moldatu da

Dagoeneko prest badago ere, hurrengo alean izanen duzue bestetako programaren berri

OSKAR TXOPERENA

Azkeneko urteotako uda gehienetan urarekin bueltaka ibiltzera ohituta zegoen jendea.

Aurten ere, guttiago ez izateko izugarrizko arazoekin hasi zen uda. Udalekoek depositora ura nahiko sartzen zela ikusi zu-

tenean, nonbait ur sareak zulo haundiren bat zeukala pentsatu zuten. Bilatzen hasi eta azkenean zera agertu da, herriko iturri inguruan dagoen arketan urari pasoa emateko bi giltza daude, bat goiko depositokoa eta bertzea Ankulutsakoa. Gertatzen zena zen, Ankulutsakoak ez zuela ongi itxitzen eta

goitik etortzen zen ura presioarengatik Ankulutsara hustutzen zela.

Bi giltzak aldatuz moldatu dute eta orain depositoa gainaz omen dago.

EPA ikastaroak

Ia ia bukatzeko dago izen emateko epea, 15ean hain zuzen, baina nahi duzuenak oraindik aukera

duzue izen emateko Herriko Etxean. Bertzerik ere egiterik badago ere, ideia modura, zeren ikastaroak izan daitezken herrian zehar dauden karteletan ikusiko dituzue. Animo!



(bertze aldean segitzen du)


Sarrolako obrak

Laister bukatuko dira Sarrolako pareta moldatzeko hasi ziren obrak. Orain gainera espaloia edo azera egin diote jendea ibiltzeko.

Aulkiak eta arbolak paratzen dituztenean txukun txukun geratuko da.

Herriko bestak!!!

Hurrengo alean beste-tako programa azalduko dugu, dagoeneko prest bait dago, hori erran digu behintzat komisioak.



ARANTZA

Joan dira bestak, berriro eguneroko lanei eutsi behar


Pilotalekuaren proiektua berritu eta subastara atera da

JON LARRETXEA

Pasa ziren bestak, giro ederrean gainera; izugarritzko jendetzarik ibili ez bazen ere, antolatutako ekintzak ongi ateri zirela aipatu behar. Mountain-bike ibilaldiak 70 partaide inguru bildu zituen, herri bazkarian 100en bat, pailasoen ekitaldia polita suertatu zen eta bertze ekitaldiak ere ongi atera ziren. Behar bada izen haundiko musika talde bat falta izan zaie aurtengo beste, guztien arrakasta borobiltzeko. Orain, bestak bukatutakoan lanean hasi behar eta hortan ari dira Herriko Etxean.

Frontoiaren proiektua berriz subastara

Horrenbertze urte pasa ondoren zaharkitua gelditua zen proiektua eta ho-



Ikusmin haundia sortu zuen herri kirol saioak



Patxi Idirtek marka berria berriz

rrelako gauzak behin betirako egiten direnez, berri-tzea erabaki zuen Udalak.

Oraingoan diseinu eta material modernoak erabiltzen dira. Horrela, teilatua lau uretara izanen da, erdi erdian zati trasparente bat izango duelarik. Azpitik egurra bakarrik ikusiko da, Etxalarrekoaren

estilora eta irekia izanen da. Irailaren 6an atera zen subastara.

□ **Hainbertze** urtez albinte, sakristau, txistulari, etabar izandako Alfonso hil zitzaigun. Beti arte!

□ **Patxi Idirtek marka berria jarri.** Badirudi ez duela mugarik gizon hauen sasoiak, hasieran

Patxi bera izan zen, gero Tomas, oraingoan berriro Patxi izan da 5 minutotan marka jautsi duena. Beraz, Gainsenberroko bordatik Trinitadara joan etorria 61 minutotan gelditzen da marka honen ondorioz. Hurrengo txanda norena?

Nafarroako Sokatira Txapelketan irabazle 640 kilotako kategorian beratarrak izan zituzten etsairik gogorrenak

PATXI PETRIRENA

Abuztuaren 15ean Amaiurren jokatuak Nafarroako Sokatira Txapelketan, sunbildarrak izan ziren garaile, 640 kiloen barrenean. Berako taldea izan zuten etsairik gogorrena, hauek azkenean bigarren gelditu zirelarik. Ondotik, Amaiur, Ultzama, Narbarte eta Ziga. Besta ondoriorik ez bide zuten sumatu sunbildarrek, eta herritik joandako berrehunen bat jarraitzaileen konfidantzari ez zioten huts egin sari eder hori lortuz.

Bertzalde, 600 kiloen mailan irailaren 29an izan den dute semifinala, eta



proba konbinatuan dagoneko Larrainzarren semifinalen arituak izanen dira

Narbarte eta Ultzamarekin, taldeko bi hoberenak Sunbillan Irailaren 22an joko-

tuko den finalerako sailkatzeko.

ARRATZUBI ardotegia

Tfnoa.: 63 72 79
Bittiria karrika - LESAKA

MANUEL LANTZ KONTABILITATEA ETA AHOLKULARITZA FISKALA

Errenta deklarazioak, BEZ edo
IVA deklarazioak, Kontabilitateak, e.a.

Eztegara 14, 1. - Tfnoa.: 63 11 08 - BERA

«U S O A»

NEKAZARI KOOPERATIBA



Ganaduarentzat
pentsurik egokiena
Tfnoa.: 63 52 14
ETXALAR

Aditu Baten Ziurtasuna

LAGUN ARON honako hauetan gara adituak:

- Industri Aseguru Konbinatuan
- Bizitza Aseguruetan
- Eraikuntzako Arrisku Orotariko Aseguruan
- Etxe Aseguru Integralean
- Komertzio Aseguru Integralean

LAGUN ARO ASEGURUAK. Konpainia on baten balioa.



Carlos III.a Etorbidea, 14
Tfnoa.: 22 56 66 Fax: 22 10 49
31002 IRUÑA-PAMPLONA

Ostatua, San Juan z/g
Tfnoa.: 61 51 19
31747 SALDIAS

Juan Jose Urrutia Juanenea
(Ajentea)

ITUREN

Irailaren 21ean ospatuko da Joaldunen Eguna

Ohizko tokietan aurkitzen dira salgai bazkarirako txartelak

IBAN ISASI

Urtero ospatu ohi den besta da joaldunaren eguna. Aurten ere bere txanda heldu zaio eta guztien gustoa ahal den moduan egiteko egitarau aproposa antolatu da: goizean trikitilariak, ondoren bertsolariak eta hauen jarraian aizkora apostua: Mindegia-Joxe Mari Fagoaga eta Olasagasti-J.A. Andiarena bikoteen artean. Bazkaria, iaz bezala Udaletxeko ganbaran izango da. Bazkalondoan bertsoak eta dantzatzeko aukera Christian Labordarekin. Arratsalde eta gauetz Izotz taldearekin gaupasa. Ohizko lekuetan aurkituko dituzue



Joaldunen Eguna burutuko da Irailaren 21ean: musika eta besta

bazkaltzeko txartelak.

Argazki zaharren erakusketa

Abuztuaren 31etik Irailaren 1era argazki zaharren erakusketa antolatu zuen Jagoba Manterolak muti-

len eskolan.

Jagoba Manterola izatez irundarra da baina azken urte hauetan Iturenen finkatu da. Aipatu Bartzelonon argazkilaritza ikasketak egiten ari dela.

AEKren barnetegiak

Jende ugari etorri da AEKri esker uda honetan Iturenera. Lau barnetegi egon dira hauetako bakoitzean 30 lagundik goitzeuden euskara ikasten. Jende hau oso jatorra zen eta hurrengo aleetan argazkiren bat aterako dugu, afari batean aterea. Ea datorren urtean ere berriro ikusten garen!

Aipatu behar, eta herrian dabilzan zurrumurruak itzaltzeko hauek diru kopuru zehatz bat ordaintzen diotela Udalari, gainera uda guztian sukaldaritzarako bi lanpostu era-tzen dituzte.

BEATRIZ

ILEAPAINDEGIA

San Miguel, 450922 - DONEZTEBE

- Solarium-a
- Ileapaindegirako produktuen salmenta
- Ordua eskatu



SANTAMARIA

Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneroko menua eta karta

Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

**BEINTZAKO
OSTATUA**

Tfnoa.: 45 00 14
BEINTZA - LABAIEN

TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN - Tfnoa.: 45 04 91

12 Tfnoa: 45 01 53
DONEZTEBE
Ostatua

IBARROLA

HAURRENDAKO ARROPA - MERTZERIA

Parrokia 6, Tfnoa: 45 04 63 - DONEZTEBE



Zure
gustoko
arropak

San Migel auzoa 27,
45 08 83 - DONEZTEBE

Usategien subastak etekin ederrak ekarri dizkie

Urrozko Udalak eskatzen zituen 3.050.000etatik 2.940.000 bildu; Donamariakoak aldiz, 2.800.000 eskatu bazituen ere, 7.495.834 atera ditu

Ageri denez, emaitza diferenteak eskeini zituzten bi subastek. Argi dago, beraz, Donamariako ehiza-postuek Urrozkoak baino errekista haundiagoa dute aisa ere.

Postuengatik ordaindutakoa

Donamaria: Golbai izeneko ehiza lekua 750.000etan atera zen eta 2.900.000 saldu zen azkenean. *Uztalakorta* izeneko, aldiz, 800.000etan atera zen eta 1.400.000etan saldu. *Bidakorri*, 300.000etan atera eta 500.000etan saldu. *Labeaga-Amezket*a, 450.000etan atera eta 1.015.000etan saldu eta



Goiko

Argibel 100.000etan atera eta 206.667tan saldu.

Urrotz: *Mugakosoro* izeneko 1.200.000etan

atera zen prezio berean saldu. *Leugarria* ere atera zen prezio berdinean saldu zen, 750.000etan. *Elkarrikoa*

aldiz, 1.100.000etan atera eta 990.000 saldu zen; merkeago beraz.

OKANE

Haragi, janari-izoztu, enbutido, yogurt...

SEKULAKO AUKERA PREZIO ETA KALITATEAN

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - **BERA**

KOXXKONTA



**Sagardotegia
Erretegia**

**Ezkontza,
bataio, bileratarako
leku egokia
(200 pertsona)**

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - **LESAKA**

Juan Meoki naiz:

Balin baduzue trasteak etxe barrenean edo ate ondoan eta buruko mine maten badazue hek ikusteak, abiso emanazue Iruritako telefono hontara

45 20 35

eta kendiko dut gusto ederrean eta ezautzen garelaik seguro nago, zuek eta ni izain garela betiko lagun ederrak.

Zuek hor zate, ni hemen nago. Zuen deia esperuan nago. Biher baino neretako gaur hobiago.

SARA

XXIXgarren Kontrabandisten Lasterkadia burutu zen Agorrilaren 25ean

OLHAIN ELKARTEA

Iragan Agorrilaren 25ean ospatu zen Kontrabandistaren lasterkaldiaren XXIXgarren edizioa.

Ekitaldi aipagarri honen emaitzak, aro beroa izanik ere, usaiakoak izan ziren. Bi lehenak saratarrak izan ziren:

Irabazlea: Michel Larzabal, 45' 37".

Bigarrena: Joset Iraimuno (Pepe), 47' 36".

Hirugarrena: Ricardo Toro, 48'.

Dena dela goresmenik beroenak lasterkaldi hortan parte hartu duten guzietan eta heldu den urte arte!



Pilota solas...

'Baionan iragan Agorrilaren 18an Frantziako

txapelketaren karietarat, Mariluz Christophe eta Etcheverry gazteak osatutako

bikoteak irabazten zuen "Cadets mailan" Uzta-ritzeren aurka 30 eta 25.

ELGORRIAGA



Bestak hagitz giro onean ospatu ziren nahiz eta hasieran eguraldiak batere ez lagundu. Zikro jatean 70 bat lagun bildu ziren eta bertsolariak ederki lagundu zuten giroa animatzen.



Bestetan zenbait txapelketaurutu ziren. Hauen artean krossa, toka, musa eta plater tiraketa. Azken honetan, Txalo Fernandez suertatu zen irabazle

530 neska-mutikoentzat eskola hasi da

ANTTON ERKIZIA

Eskolak hasi direla: hori da notizia. Ez pentsa gero notizia tentela denik hau, herrian. Eskolaurrera eta OHO (EGB) hastearrekin, 530 neska-mutikoentzat, bizia arras aldatu da egun hauetan. Eta beren guraso eta familiarentzat ere.


Leitzeko eskola komarkal inguruko herriak ere hartzen bait ditu, 530 neska-mutiko horietatik, 6 edo 7 Aresotik datozte, eta 10 bat Ezkurratik, goi mailako kurtsoak egitera.

Eskola Profesionalean, hila honen azken astean hasiko omen da ikasturtea.

Helduentzat ere

“EPA” kurtsoak...

...hastear daude. urtero bezalatsu, kurtso desberdin franko antolatu nahi da. Apuntatzeko epea, irailaren 15a arte.



7.300 liburu eta 270 irakurle txartel ditu Leitzeko bibliotekak (Argazkiak ANTTON)

Herri liburutegia ixtea nahi ez bada...

...toki berri bat bilatu beharko dio Udalak. Baldintza hori ezarri zuen Luis Izak (Naparroako Biblioteka sarearen buruak) berriki Leitzara egindako bisitaldian. Orain arte biblioteka zegoen lokalaren

zati bat, bere nagusiari itzuli zion Udalak. Eta Bibliotekarentzat gelditu den tokia oso eskaxa omen da. Biblioteka serbitzuak segitzekotan, hila honen erdirako toki berri baten proposamena egin behar dio Udalak Diputazioari.

Bien arteko hitzarmen

edo konbenio baten arabera, Udalak ezarri behar du toki egokia, eta diputazioaren kargu izaten dira liburuak eta langilea.

Leitzeko herri liburutegiak 22 urte ditu irekirik, 7.300 liburu dauzka (asko, euskaraz) eta 270 irakurle txartel.



MARI LUZ SPORT

ESTETIKA  SOLARIUM

GIMNASILEKUA

Eztegara 17, Tfnoa: 63 04 83 - BERA

HOTZ INDUSTRIALA
KAMARAK, BOTILATEGIAK...

ZERBITZU TEKNIKOA

Tfnoa: 631108 / 630898 - BERA
 266411 - IRUÑA

EZKURRA

Jende asko eta antolaketa ona, Bengoetxearen omenaldian

225 lagunentzako bazkaria serbitu zen "Ingiñuna" plazan.

ANTTON ERKIZIA

Badakit orain dela hila-bete bat ospatu zela omenaldi egun hura. Baina, TTIPI-TTAPAN aipamen bat egin gabe ezin utziko dugu bada. Herriarentzat ospakizun handi bat izan bait zen.

Abuztuaren 18an, eta pestetako azken egunean, Ezkurrako herriak omenaldi bat eskeini zion, "Plazenea" etxean sortutako Bengoetxea IIIa pilotariari.

Gauza franko kontatzerik legoke egun hortaz: herri meza, dantzarien saioa, pilota partidua (gaztetxoak lehenengo, eta ondoren Beristain eta Ta-



Ikusmin handia omenaldian (ANTTON)

pia, Juan Mari Bengoetxea bera eta Iparra), kaleko giroa txistulari eta trikitalariek...

Guzti hortaz aparte, bi gauza goraipatu nahiko nituzke.

Batipat, egun horrek

erakarri zuen jende pilla. Ikusi besterik ez argazkian. Herri osoa zegoen plazan, eta Leitzaldetik ere jende asko, bi herrien arteko lokarriak sendoak direla agertuz.

Eta aipatzekoa ere, egun

hortan eraman zen antolaketa lana: aparkalekuen ardura, 225 lagunentzako herri bazkaria "Ingiñuna" plazan... Lan ona eta txukun.

Bikain, Ezkurra!

ARESO

Udaletxe eta plazako obrak berriki bukatu dira

JUANA MARI

Udaletxea handia denez, gela edo instalazio asko egiteko posibilitatea ere badauka. Obra haue-tan, bileretarako areto nagusia, idazkaritza eta sekretariaren bulegoa txukun antolatu dira, baita noski, komunak eta dutxak. Berrikiago, festak baino lehen, berri-egun egin dute baita plazako pareta, bere kon-

tra banku luze bat eginez, patxada ederrean zuhaitzen itzalpean egon ahal izateko.

Festetan gustora

Aurtengo festak nola joan diren jakiteko balantze moduko bat egingo bagenu, oso harro egon gaitetzke. Izan ere, benetan politikak eta alaiak izan dira eta jende asko etorri zaigu dibertitzera. Horrela bada,



eskerrak eman behar dizkiogu Aresoko gazte guz-tiei eta Udal Festa Komi-

sioari, bakoitzak berean gauzak horrela izateko egin duten lanagatik.

Edan daiteke lasai etxeko grifotik datorren ura

Kloroa botatzeko makina moldatutako dagoeneko

ESTEBAN AROZENA

Herritar gehienek ongi dakiten bezala ia abuztua guzian aberiatua egon da uraren depositu generalean kloroa botatzen duen makina. Esan beharra dago, iraila hastearekin batera konpondu dela aipaturiko tresna eta horren ondorioz, etxetara iristen den urak ohizko kalitatea duela, hau da, inolako kezkarik gabe edan daitekeela.

Ura kloratu gabe ego-teari hasiera batean ga-



rrantzi gehiegirik ez bazi-tzaion ematen ere, abuztuaren erdi aldera hainbat

goizuetar diarreak jota gora-behera batzurekin ibili ziren. Hori ikusi eta

medikuaren aholkua entzundakoan, uraren kontsumoarekin neurriak hartzeko eskatuz bando bat kaleratu zuen udalak. Dena den, lehen esan dugun bezala, arazo guztiak konpondu dira eta irailaren 2az geroztik gure etxetara ailegatzen den urak ez du noski inolako tripaminarik sortuko.



KIROLAK ZELA


Altzate 6, Tfnoa: 63 05 98

BERA

GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIGINTZA
OPARIK
BURDIN TRESNERIA
Altzate, 5 Tfnoa: 630083 BERA

BOAN TAILERRA



KOTXE BERRIEN

ERAKUSKETA ETA SALMENTA
Herriko Etxeko Plaza - BERA

GAZTAÑAGA

Taberna

Bokadilloak eta pintxoak
Tfnoa: 610708 - LEITZA

MENDI HOTELA



DONAMARIATKO BEHTA

Jatetxea


Tfnoa: 450925 / 450708 - DONAMARIA

OLARI

Jatetxea

Tfnoa.: (948) 45 22 54

IRURITA



Jatetxea haize egokituarekin hornitua

BAZTAN

Oporrak eta bestetako parrandak finitutakoan, berriro egunerokora

Arizkungo errefetak irailaren 28-29an

JOSEBA I.

Gehinetan bezala, eguraldiak badu oraingoan ere aipamenik. Izan ere, azken bolada honetan eguzkiak gehiena kixkaltzeaz aparte bazter pila erre egin dira, eta bota dituen euri zaparradek ez dute inola ere kanpoaren egaririk ase. Suteen ondorioak, berriz, ederki nabaritu dira errekek ekarri duten lur pilan.

Hiru baztandar lau lehenengoetan

Halaxe izan da berriki egina den XXIV. Nafarroako Artzai Zakur Txapelketan. Lehena Amaiurko Patxi Etxeberria izan zen, "Lagun" zakurrarekin eta hilabete honetan Oñatin eginen den Nazioarteko Txapelketara joanen da. Hirugarrena Amaiurko Felix Irigoien, "Kubino" zakurrarekin eta laugarrena, Lezarozko Pello Oskariz "Txiki" zakurrarekin.

"Vacas" filmearen erro daiak, Baztan

Hollywood-en bihurtu

Karlistadetan, bi fami-



Eskolarako prestaketak bete-betan. Maisuak eskolaratu dira eta haurrak ere aste honetan hasiko dira. Gurasoentzat lasaitasuna eta... jantziak direla, liburuak... gastua baita

liaren arteko gerran bizitutako amodio istorioa kontatzen da Beartzun eta Erratzun erro datzen ari duten pelikula honetan. 70 baztandar ari dira "extra" bezala lanean. Guzi honek espektazio haundia sortu du, hala ematen du erro daia ikustera joan diren jende pilak ikusita. Hauei, lan hauen harat-honatak ezagutzeko bederen balioko zien. Aipatu baita, eguneko 5.000 pztatako saria zutela "extra" lanean aritu direnak. Ea pelikula ikustean, bertako jendea eta lekuak ezagutzen ditugun.

Udalbatzak Xorroxinentzat lizentzia eskatuko

Hala onartu zuen udalbatzak abuztuaren 31an egindako bileran. Horrekin batera, Xorroxinentzat diru laguntza ere eskatuko zaio Nafarroako Gobernuari.

Eta... ehizturiak goiti begira hasiak

Zenbaitzuk eskopeta bizpahirulau aldiz garbitua omen dute iada. Ez da broma, 8.000 baztandarretik milak badute eskopeta-lizentziarik eta. Ehiziaren aurka daudenak ere hortxe

segitzen dute ehiztariekin eztabaidan. Ez dadila halere, odolik erreketarino ailegatu.

Lau Baztandar Kenia eta Kilimanjaro mendietan

Bertze lagun batzurekin batera Manolo Otero, Lezeta anaiak eta Eseberrik, kaskoraino ailegatzeaz aparte bide berri bat ere ireki egin dute beraien us-tez. Bideari "pole-pole" izena jarri diote, bertako hizkuntzan poliki-poliki erran nahi du.



ERLOJU eta BITXI DENDA

ARRIETA

KIROL TROFEOAK

Tfnoa.: 580 445 - ELIZONDO



IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

Udazkeneko moda, opariak, telak

Herriko gastuetarako dirulaguntza eskatu du Udalak

MARGARI eta KOROKO

Udalbatzak abuztuaren bigarren egunaren bileran Nafarroako Gobernuaren baimenarekin "Banco de Crédito Local"-i 22.933.854 pezeta abantzu edo aurrerapena eskatzea erabaki zuen. Diru hori izanen da konkretuki herri guzian egiten ari diren lanen parte baten gastuak finantzatzeko.

Bestak

Bestak pasatu direla eta gutti gora behera dena ongi

gan da. Gauza ikusgarriena dudarik gabe, ahate-jokoa izan zen: Zugarramurdiko eta Sarako gazteak izan ziren parte hartzaileak eta Jexus, Iruingobordakoa, "kapitan".

Izan genituen ere bi ustegabeko gauza: bat, Andresek ere parte hartu zuela bere "Jazinta" astoarekin, eta bertzea, Juan Mari lasterka gaki zelarik, bere zaldia errestatu zen eta Juan Mari lurrerat erori, ondorioz zoritxarrez zangoa hautsi egin zuen.



Ahate jokoa

Animo Juan Mari! eta prest egon Sarako besteta-

rat gateko muleta eta guztirekin.

EROSLE
LESAKA

EROSKIn zegoen jenero eta promozio berdinarekin eta...

Deskuentoak sozioentzat

Bittiria 67 - Tfnoa: 637264

ZUNZARREN
Gestoria

◆ Garraiolari edo transportista titulua ateratzeko kurtoa. Irakasle titulatuak Azterketa Azaroan

◆ Allianz Ras Aseguruak

◆ Bidai Agentzia

Tfnoa: 45 22 93
Amaiur Gaztelua 2

31700 ELIZONDO

ARMUA
Jatetxea



Zugarramurdiko karretera 3. Km
Tfnoa.: 59 9131- URDAZUBI



JATETXEA

Tfnoa.: 580101
Santiago 1
ELIZONDO

Galarza

BAZTAN
ALTZARIAK
zurgindegia

121 errepide nazionala, 54. km

Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon
- Haritz eta gerezi egurretan egindakoak



Ezkontzetako erreportaiak argazkiak eta bideoa

Tfnoa.: 58 01 55 - Santiago 40
ELIZONDO

Eta orain, zure koloretako argazkiak **ORDU BATEZ ERREBELATUAK** ditugu



URDAZUBI

Badoazi asken turistak

ALIZIA OLAIZOLA

Uztaila eta abuztuan bisitari aunitz izan ditugu eta ekainean oraino gehiago. Dantxarineako bentetan, Leorlasko aitzuluetan, logelak alokatzen dituzten etxeetan eta herrian ere, jende azkarki ibili da. Orain, berantago etorritako kanpotarrak baino ez dira gelditzen. Bentetakoek, hilabete huntan hasi dire berriro bentak egun batez ixten.

**Zikiro jatea
Otsondon**

Uda huntan herriko

gazteek zikiro jate bat antolatu zuten beren artean, arras ongi afalduz herriko pilotalekuan. Errepikatze-ko asmoarekin daude, baina orain Otsondon, denborak laguntzen badu.

Laborariak kontent

Eguzkiak lagundurik bukatu dituzte soroak eta soro aunitz bildu ere, zentaz aurten, ez dire harrak agertu belaietan. Artoa ere edertzen ari da eta hemengo batzuk, entsilatu egiten dituzte berantago.

**Irailaren 9an
kurtsoari hasiera
eman zitzaion**



Aurtengo soroak finitzen

Ttikienak Zugarramurdiko eskoletan eta 2. etik 8. mailarainokoak Urdazubiko eskoletan. Gainera, eskolak pintatu izan dira.

Laister jantzigintza klaseak ere hasiko dira. Ikastaro hauen arduraduna Berako Andoni Errandonea da.

ARROPA DENDA
MERCERIA
FANTXIKE
JAIME URRUTIA, 24
TFNO. 580312
ELIZONDO

KLOXKA

Legia 11 - 63 06 64 BERA

CERVANTES
HELVETIA SEGUROS

Era guzietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia

OSKORRI
LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRE

Beatriz Apaindegia

Espezializatutako zentru akreditatua

Larruazalaren garbiketa, aurpegi eta gorputz tratamenduak, depilazioak, masaiak, sauna eta solarium.

Zatoz eta "Importancia de tu imagen" liburua oparituko dizugu

Santiago 53, Tfnoa: 58 02 83 - ELIZONDO

G.M.G.

GAMARGA S.A.

MARMOLAK, GRANITOAK, HAREARRIAK

121 errepide nazionala, Oharrizko bide-gurutzea
Tfnoa.: (948) 58 05 43 IRURITA

- ✓ Sukalde eta komunetarako entzimerak
- ✓ Etxe aintzinaldeak eta pieza ttikiak orohar
- ✓ Kanposantutarako lanak (Hilarriak...)

FZ

FOTO ZALDUA

Argazkiak, Bideoa, Markoak

Zure argazkiak berehala errebelatuak eta gainera profesionalen kalitate eta kolorearekin
KONPARA ITZAZU!!

Elizondo Tf: 58 04 91
Doneztebe Tf: 45 03 64

EZKONTZAK

✕ **Fco. Xabier Jauregi Lasa** eta **M^a Carmen Perez Mitxelena**, Irun eta Berakoa, abuztuaren 10ean.

✕ **Aniceto Palacin Filat** eta **Pilar Barroso Alcazar**, Huescako eta Lesakakoa, abuztuaren 10ean.

✕ **Juan Ignacio Lanz Telletxea** eta **M^a Pilar Solbes Uranga**, Bera eta Irungoa, abuztuaren 31ean.

✕ **Ascensión Olano Cestorain** eta **Lola Otxotorena Galarza**, Leitzakoa eta Beruetekoa, irailaren 7an.

✕ **Julian Zabaleta Zabaleta** eta **Amaia Sodupe Alduncin**, Leitzakoa eta Azkoitiakoa, abuztuaren 24ean.

✕ **Jose Ignacio Ostiz Lacunza** eta **M^a Arantzazu Urroz Mutuberria**, Ultzama eta Leitzakoa, abuztuaren 3an.

✕ **Santesteban Maixan** eta **Michel Elizalde**, Saran, Abuztuaren 30ean.

✕ **Izaskun Basterrika Altxu** eta **Luis Olazar**, Ituren eta Elgorriagakoa, Abuztuaren 30ean

JAIOTZAK

✕ **Beñat Irazoki Arburua**, Beran, uztailaren 12an.

✕ **Fco. Javier Susperregi Aberlaiz**, Lesakan, uztailaren 31ean.

✕ **Ane Taberna Etxeberria**, Goizuetan, abuztuaren 30ean.

✕ **Maialen Apezetxea**, Goizuetan, abuztuaren 31an.

✕ **Sandra Fikler**, Saran, Abuztuaren 13an.

✕ **Javier Gago Balda**, Donezteben, Abuztuaren 30ean.

✕ **Andrea Elizalde Indaburu**, Etxalarren, Uztailaren 5ean.

HERIOTZAK

✕ **Monica Yanci Petrikorena**, Igantzín, abuztuaren 3an, 93 urte.

✕ **Sebastiana Gorria Elgorriaga**, Beran, uztailaren 31an, 85 urte.

✕ **Elvira Arribillaga Zelaieta**, Beran, abuztuaren 12an, 87 urte.

✕ **Ignacio Altzугuren Agirre**, Beran, abuztuaren 24ean, 70 urte.

✕ **Patrocínio Aramendi Agirre**, Beran, abuztuaren 28an, 77 urte.

✕ **Alfonso Larralde**, abuztuaren 8an, Arantzan.

✕ **Delfina Ostolaza Goienetxe**, Donezteben, abuztuaren 21ean, 87 urte.

✕ **Jesus Ostiz Iribarren**, Donezteben, irailaren 5ean, 69 urte.

✕ **Maritxu Telletxea Babace**, Oitzen, irailaren 1ean, 59 urte.

✕ **Fca. Larralde leitza**, Sunbillan, abuztuaren 26an, 78 urte.

✕ **Fernando Saharrea**, Saran, Abuztuaren 7an, 68 urte.

✕ **Paulette Cassassus**, Saran, Azuztuaren 20an, 78 urte.



INFORMAZIOA:

Ezkalo Jauna
Tfnua: 45 15 18
Doneztebe

ELGORRIAGA: • 90 m²ko pisua, haritzarekin mobleztatutako sukaldea, kalefakzioa, kanpokalde eguzkitsua. 6.300.000.

NARBARTE: • 100 m²ko 1.pisua, 45 m²ko garagearekin. 6.250.000.
• Kanpokaldean, 100 m²ko 2. pisua, 100 m²ko baratza eta 22 m²ko garagearekin. 7.500.000 negoziagarriak.

LEGASA: • 90 m²ko pisua, 25 m²ko garagearekin. 7.800.000.

ORONOTZ: • Bertizetik hurbil, bide oneko borda, eguzkitsua eta erreka ondoan. 4.300.000.

ITUREN: • Borda, 5.000 m²ko belar soroarekin.

DONAMARIA: • Borda lur eremuarekin gabe.

ARANTZA: • Baserria 40.000 m²ko lur eremuarekin.

ETXALAR: • Baserria 20.000 m²ko lur eremuarekin.

BERA: • Etxea lur eremuarekin.

• 2 etxe lur eremuarekin eta borda alokatzen ditut, Baztan-Bidasoan.
• Lehenbaitlehen lur eremua behar da Baztan-Bidasoan aldean, kanping bat egiteko.
Bi lanpostu eskeintzen dira

Hastear daude helduen heziketa okupazionalerako ikastaroak

Informatikatik hasi eta eskulangintzara, taldeek beraiek proposa dezaketen ikastaro berezietatik pasatuz. Guziak izan daitezke posible



Karmele

Andoni Errandonea, ikastaro hauen koordinatzailea

Ez da atzoko kontua gisa honetako ikastaroak antolatzen hasi zela Nafarroako Gobernua tokian tokiko Udalen laguntzarekin. Helburua, izenak berak dioen bezala, helduei lanbideren batetarako baliagarri izan dakiekeen ikastaroak ematea izanen litzateke; ahaztu gabe baita, asti librea probetxatuz, gustoko zeozer ikasi nahi dutenen kasua. Iaz, ikastaro hauetan 1.050 lagun apuntatu ziren inguru honetan. Arrakasta begibistakoa da. Horra bertze datu adierazgarri bat: azkeneko urteotan ez dira guti, matrikularengatik "dirutza" eskatu ondoren, gauza berdinsuak eskeiniz gure herrietatik agertu diren enpresa-akademia pribatuak.

Nork ez du erreparatu karrketan, dendetan, ostaluetan... hainbat lekutan, sasoi honetan urtero antolatzen diren ikastaroen berri ematen duten kolore bizi-biziko karteletan. Ba, horiexek dira, hain zuzen ere, erreportai honetarako aitzakia eman digutenak. Eta lehen eskuko informazioa jasotzeko, Andoni Errandonea Beratarrenagana jo dugu. Izan ere, bera dugu azkeneko urteotan Bortziriak, Malerreka, Bertizarana, Leitza-Goizueta eta Baztanen ikastaro hauen koordinatzaile lanetan ari dena.

Zer, nola, non...

«Berez, eskatzen den edozein ikastaro eman daiteke, posibilitateen barne baldin badago, jakina!» azaltzen digu Andonik. Nolanahi ere, lehenik eta behin aipatu behar litzateke, ikastaroren batetara apuntatzeko baldintzen artean, Irailaren 15erako Herriko Etxean izena emateaz aparte, 16 urteak beteak izatea eta gutienez 15 lagun elkartzearenak daudela. Matrikularengatik, bertzalde, 1.000 eta 3.000 pezetaren arteko kopurua ordaindu behar da, zenbait ikastarotan materialeak ere baita— eta klaseak emateak ere.


teko tokia eta bere gastua tokian tokiko udalen gain dago, irakasleak eta bertzelako materiale teknikoak Nafarroako Gobernuaren gain dauden modura.

Segidan, irailaren bukaeraldera edo, apuntatu direnekin bilera antolatuko da eta bertan, ikastaroa zein egunetan eta zein ordutan ematea komeni zaien guziei zehaztu egingen da.

Iaz, 1.050 ikasle eta 63 ikastaro

Ikastaro hauek lortu duten arrakastaren neurriaz nolabait jabetzeko, datu adierazgarriak eskeintzen dizkigu Andonik: «Azkeneko urte honetan, adibidez, 1.050 ikasle inguru izan ziren matrikulatu zirenak eremu honetan. Hauetariko gehienak emakumezkoak izan ziren, 30 urte pasatuxekoak. Gizona gehiago ez dute behar adina asti liberrik edo beharbada... zerbait ikasterat joatearen zera horrek, ez die gehiegi motibatzen edo... nork daki. Bertzalde, talde kopururik haundiena, normala den bezala, herri haundienetan ateratzen da.

Batez ere Leitza, Baztan eta Bera ditugu, proportzio horretan, jende gehien apuntatzen diren herriak. Bertzenaz, herri txikietan ez dago diferentzia handirik... errate baterako Goizueta, Zubietta, Ituren, Lesaka, Doneztebe, Urdazubin... talde bat edo berte izaten da.



Taldea osatzeko, beharrezkoa da hamabortzen bat lagun elkartzea eta herriko Etxean apuntatzea

Hau da, ikastaro konkretu batetara apuntatzeko animatu direnak, nahiz eta ikastaroa ez betiko horietatik izan, (moble zaharrak berriztatze ikastaroa edo... zer dakit) pausorik zailena emana dute segur-raski».

Gehienbat ikastaro teknikoak

Koordinadoreak agertu digunez, iaz antolatu ziren 63 ikastaroetatik 29 teknikoak izan ziren (informatika, soldadura, argazkilaritza, iturgintza...), 18 eskulangintzarekin zerikusia zutenak, 14 etxeko aferekin (etxeko ekonomia, jostura, sukaldaritza...) eta

berte biak hizkuntzaren bat ikasteko, ingelesa kasu honetan (euskara ez da ematen). Ageri denez, ikastaro teknikoak dira batez ere jende kopururik haundiena animatzen dutenak.

Baita INEM eta lantegiekin batera

Bertzalde, badaude antzerako berte ikastarorik ere, Andonik koordinatzen dituenak. Hor daude, errate baterako, INEMek antolatzen dituenak. Honek, ikastaro konkretuak eskeintzen ditu 25 urtetik egunean lau ordukoak. Eta azkenik, enpresek antolatzeko eskatutakoak edota

beraiekin hitzegingandoren antolatutako ikastaroak izanen genituzke.

Ikastaroak euskaraz hartzeko aukera hortxe dago


Halaxe agertu digu Andoni Errandoneak: "nahikoa da apuntatzerakoan klaseak euskaraz hartu nahi direla anotatzea... eta listo!". Beraz, hortxe dago aukera ederra, intereskoa den ikastaro hori etxetik hurbil, matrikula merkearen truke eta euskaraz egitekoa. Baina jakina, hortarako matrikulatu egin behar!

JOXEMANUEL IRIGOIEN

Manex Bergara: "Gure artean mugarik ez da"

Aurtengo AKELARREa Irailaren 8, 14 eta 15ean

AKELARRE jaialdiaren ospakizuna dela eta, mugaren inguruko bere sentipenei buruz galdetu diogu saratar honi. Bere bizitzan zehar izandako gorabeherengatik, izan du lehengo eta oraingo harremanen berri, eta horrelaxe azaldu dizkigu, leku aunitzetako ezagupenez hornitutako euskara aberats eta garbian, bere etxean izan dugun eleketan. "Beti Gazte" Sarako adinekoen elkartearen buru den gizon honi, gaztetasuna, euskaltzaleatasuna eta aber-tzaleatasuna dario.



P. Petirena



Zuk aspalditik izan dituzu harremanak bertze aldeko jendearekin...

Gure gazte denboran, aspaldi du e... duela hirue-tanogeita zenbait urte, Ber-rako, Etxalarko, Zugarramurdiko, lesakarrak, nundinahitik Sarako bestetara etortzen zituan, baino bes-

ta guziak, has ta fin, anitz etortzen zituan beren akordionakin, eta besta elkarrekin egin eta hik izaten hituen bat edo bi hire lagunak, bertze batek berdin, eta eramaten hituen arratsean etxerat, eta bihar-munean tira, besta berriz, usadioak zituan, orai denak galduak...

Froga bat emateko, ni

berrogeitahiruan pasatu nintzelarik hemendik alemanen ihesi, errateko bai-zik ez duk nola ginen euskaldunen artean, izan Ber-rakoak edo Sarakoak edo bertzetakoak, anaia zenarekin, hemengo familia bateko anaiak zian mugan benta, eta horren etxera bildu gintuan. Haren semea Espainian ejertzitoan zuan

orduan soldadu, eta permisionez etorria, eta berak emanik ideia, "zu nere *ta-maina beretsukoa zara, nere soldadu arropan ematen bazina gutiago ezagutuko gintuzkete*", eta Beratik Irunerat Francoren arroparekin, ponpon gorriarekin aintzinean, joan ninduan.

Horra oroitzapen bat. Eta ni baino aunitz gehiago gurutzatzen zirenak baziren, zeren aunitz kontrabando ibiltzen bait zen, eta egun guziz elkarrekin ziren gizonak baziren, gazteria guziak elkar ezagutzen zuen.

Kontrabandoan diru interesez gain batasunik agertzen zen?

Segurki baietz, batetik kontrabandoan aritzeko behar du elkarrekin konfiantzia izan, gero behar du hitza atxiki, nahitaez elkar frogatzen ziteian, elkarren arteko konfiantza osoan bizi ziren.

Orain harremanak aldatu direla ikusten duzu?

Orduan abantail bat bagenian, hemen denak euskaraz mintzo zituan, eta orain berriz ahalkegarri duk, zenbaitek, berek ez zekitek frantsesa, xehatzen ditek frantsesa, eta haurrekin frantsesez mintzo...

Ez ote gara elkarren artean arrotzago?

Ez zekiak, ni bertze aldera joaten naizelarik, euskaraz mintzatuz gero denetan ongi hartua haiz.



Eskulanak dira bere kezka eta nahiak adierazteko baliabide bat



P. Petrirena

Oroitzen naiz, duela zenbait urte, Bizkaian nenbela, autoari gasolina botatzera joan, eta gizon beltzaran bat ikusi, ez zian euskaldun itxurarik, "*hablais vasco*" edo holako zerbait erran nioan nere gisara, eta "*zer, euskara... zer bada? Hemen denak euskaldunak gara*".


Hobeki eta gehiago elkar ulertzeko zer egin beharko genuke, nolako loturak sortu...

Ni nere gisarat entseiatzen naiz neretzat... horra, ikusten duzu zer egiten dudan: Hego-Iparrak. Gauza anitz baita ez dakidanik, batto aditzen dudanean miatzen naiz (eta koaderno bat erakusten digu, gahienbat hegoaldean erabiltzen diren euskal hitzen azalpen eta i-

tzulpenekin). Nik nere adinanean ez nitek hola ari beharrik, baina plazer diat hori... Ainitzetan, bertze aldekoekin solas egin eta

hitz bat atxematen dutelarik, markatu eta gero entseiatzen nauk oroitzen.

OLHAIN ELKARTEKOAK
PATXI PETRIRENA



"Euskaraz mintzatuz gero denetan ongi hartua haiz"


Eskualdeko igeriketa txapelketaren finalak jokatu ziren Beran

Taldeka Baztan izan zen lehena eta Bortziriak bigarren

Arrakasta osoz garatu ziren abuztuaren 22an kimu eta haur mailetan, neska eta mutilak, jokatuak igeriketa txapelketa Berako Udal igerilekuan, Nafarroako IV. Kirol Jokoen barruan. Lehiaketa, Gure Txokoa Elkartearen Igeriketa Sailak antolatua izan zen, Nafarroako Igeriketa Federakundearen eta Berako Udalaren babesaz.

Bortziriak, Malerreka, Baztan eta Leitزارango 64 igerilarik, 16 eskualdeko, hartu zuen parte tximeleta, bizkar, beso eta libre estiloetan, bitariko txandetan australiarretan eta waterpolo partiduez gain.

16 hoberenak abuztuaren 31an eta irailaren 1ean Sesma herrian jokatu beharreko Nafarroako finalak joan ziren, lau eskualdeko selekzioa hauek osatzen zutelarik: Agurtzane Zelaieta, Ane Etxegarai, Ekhine Etxepeteluku eta Haritz Perez (Bortziriak), Karmele Galain, Ines Barberena, Itsaso Salaburu, Isabel Villar eta Oskar Alvarez (Baztan) Beñat Saralegi, Pello Lizartza, Aitziber Nabaskues, Josu Ganboa eta Oskar Ariztimuino (Leitzalde) eta Raul eta Ruben Castro (Malerreka).



Kimu mailan irabazleak

Sailkapenak

Tximeletan, kimu neskak, 25 m.: 1. Agurtzane Zelaieta, 2. Eunat Lopez, 3. M^a Jesus Perugorria. Kimu mutilak: 1. Beñat Saralegi, 2. Josu Sanz, 3. Mikel Alzuri.

Haur neskak, 50 m.: 1. Aitziber Nabaskues, 2. Isabel Villar, 3. Saioa Ataun.

Haur mutilak: 1. Haritz Perez, 2. Oskar Alvarez, 3. Manuel Iribarren.

Bizkarrean, kimu neskak, 25 m.: 1. Ane Etxegarai, 2. Goretta Ruiz, 3. Maite Urroz.

Kimu mutilak: 1. Pello



Haur mailan lehen sailkatuak

Lizartza, 2. Iker Frias, 3. Ruben Castro.

Haur neskak, 50 m.: 1. Ines Barberena, 2. Leire Goikoetxea, 3. M^a Carmen

Bertiz.

Haur mutilak: 1. Oskar Alvarez, 2. Oskar Ariztimuino, 3. Josu Goienetxe.

Besoan, kimu neskak,

25 m.: 1. Karmele Galain, 2. Marina Bergaretxe, 3. Blanca Arruti.

Kimu mutilak 1. Raul Castro. 2. Jaime Cruz, 3. Koldo Ruiz.

Haur neskak, 50 m.: 1. Itsaso Salaburu, 2. Leire Goikoetxea, 3. Annelis Perrotxena.

Haur mutilak: 1. Josu Ganboa, 2. Manuel Iribarren, 3. Iban Fagoaga.

Librean, kimu neskak, 25 m.: 1. Ane Etxegarai, 2. Ekhine Etxepeteleku, 3. Karmele Galain.

Kimu mutilak: 1. Ruben Castro, 2. Jaime Cruz, 3. Josu Sanz.

Haur neskak, 50 m.: 1. Isabel Villar., 2. Ines Barberena, 3. Aitziber Nabaskues.

Haur mutilak: 1. Haritz Perez, 2. Oskar Ariztimuino, 3. Josu Goienetxe.

Txandaka, kimu mailan, Bortziriak izan zen irabazle, haur mailan berriz, lehenengoa Baztan izan zen.

Australiarretan, kimu mailan: 1. Raul Castro, 2. Ruben Castro, 3. Mikel Altzuri.

Haurretan: 1. Haritz Perez, 2. Isabel Villar, 3. Jose Manuel Iribarren.

Waterpolon, Malerreka izan zen irabazlea, kopuru orokorrean, taldeka Baztan izan zen irabazle eta bigarren Bortziriak.



Iharduera bikaina igeriketa selekzioarena Sesman

Seigarren lekua eskuratu zuen hamarren artean

Bi urrezko domina, bost zilarrezko eta 5 brontzezko da lortutako emaitza Bortziriak-Malrerreka-Baztan eta Leitzaraneskualdeek osatzen duten zonaldeko selekzioa, abuztuaren 31an eta irailaren lehen Sesman

jokatutako Nafarroako IV. Igeriketa jokoen finaletan. Kopuru orokorrean, taldeka seigarren geratu zen selekzioa hamar taldeen artean, 160 igerilarik hartu zuelarik parte. Iharduera bikaina, eskualde hauetan instalazio

egokirik ez izan arren igeriketarako.

Kimu eta haur mailetan jokatu zen lehiaketa, neska eta mutilak, tximeleta, bizkar, beso eta libre estiloetan, txandaka, australiarretan eta waterpolon aritzeko lehiari.

Sailkapenak

Tximeletan, haur neskak, 50 m.: 2. Isabel Villar. Bizkarrean, kimu mutilak, 25 m.: 2. Pello Lizartza. Haur mutilak, 50 m.: 2. Oskar Alvarez. Librean, haur neskak, 50 m.: 3. Isabel Villar. Haur mutilak, 50 m.: 3. Haritz Perez.

Txandaka librean, kimu neskak, 25 m.: 2. Agurtzane Zelaieta, Ane Etxegarai, Karmele Galain eta Ekhine Etxepeteleku. Kimu mutilak, 25 m.: 3. Beñat Saralegi, Pello Lizartza, Raul Castro eta Ruben Castro. Haur mutilak, 50 m.: 2. Haritz Perez, Oskar Alvarez, Josu Ganboa eta Oskar Ariztimuino.

Txandaka, kimu neskak, 25 m.: 1. Agurtzane Zelaieta, Ane Etxegarai, Karmele Galain eta Ekhine Etxepeteleku. Haur neskak, 50 m.: 3. Aitziber Nabaskues, Ines Barberena, Itsaso Salaburu eta Isabel Villar.

Australiarretan, haur neskak: 3. Isabel Villar. Haur mutilak: 1. Haritz Perez. **Selekzioetan**, Behe Erribera izan zen irabazle, ondoren Behe Erdi Erribera, Sakana, Garai Erribera, Iruñea eta "Bortziriak- Malerreka- Baztan - Leitzarane"

Etxebizitzak

• **Beran** alkilatzeke pi-sua behar da. Norbaitek baldin badu dei dezala 630072 tfnora. Ana.

Lana

• **Esperientziadun administrariak** edozertan lan eginen luke. Tfnoa: 943 397388. Luis

• **Administrarritza** edota euskara klaseak emango nituzke. FPII eta Hizkuntza Eskolako tituloak ditut. Tfnoa: 637948.

• **Euskaraz eta frantsesez** dakien neska bat eskeintzen da jatetxe edo denda batean lan egiteko. Eskerrik asko. Tfnoa: 63 74 10. (Sara).

• **Lesakako** bi neska gara eta gustatuko litzai-guke herriko bestetako osatuetan lan egitea. Tfnoa: 637872 (1etik 3ak arte).

Denetarik

• **Gaia** belardenda tras-pasatzen da. Dagoen bezala hartzen baduzu ganga bat da. Martxan dago bi

urtez. Nik atenditu ezin dudalako uzten dut baina lanpostu polita da. Animo. Tfnoa: 63 74 10.

• **Ekipoak** alokatzen dira udalentsat, bertsola-rientzat, elkarrentzat, mitinetarako, etabar. Laia musika dendara deitzea bertzerik ez duzu. 631059.

• **Berako** bestetan larruzko kartera galdu dut J.A. inizialekin. Aurkitu baduzu dei nazazu 630 243 telefonora, eskertuko nizuke.

Salerosketak

• **Ordenadorea** salgai. Inves PCX 10, 3,5eko bi disketerakoa, inprimagailua, WordStar eta mahaia, berri berria. 90.000 pzta. Tfnoa:634126, gauez.

• **Sukalde** mixtoa salgai, dexente ongi dagoena. Tfnoa: 510059.

• **R-5 GTL NA-W** matrikulakoa salduko nuke. 50.000 kilometro ditu eta egoera oso onean dago. Tfnoa: 63 72 36.

• **Belarra mozteko** makina salgai. Tfnoa: 634072. Arantza.

• **Karrera** bizikleta txikia (Razesa) salgai. Tfnoa: 637 317.

• **Anplifikadorea** salgai kitarrarentzat -100 watio- Tfnoa: 637852 (Javier).

• **Kanping denda** familiarra salgai (bosten-tzako). Tfnoa: 630317.

• **Artzai** zakurkumeak salgai. Tfnoa: 637 410.

• **Bultaco** Matador bat salgai. Hagitz merkea eta egoera onean. Ehizarat joateko egokia. Tfnoa: 631188.

• **Erbi-ehizarako** 10 hilabeteko zakurra salgai. Tfnoa: 615016. Saldias.

• **Zaldia**, bi urte terdikoa salgai. Tfnoa: 615016 Saldias.

• **Kanarioak salgai:** aurten jaiotako ar horixka eta 3 urtetako eme berdexka. Oso merkeak. Tfnoa: 631355 tfnora deitu gaueko 9etatik aintzina.

Harremanak

• **Elizondoko** Carlos Mariezkurrena. Mutil polita eta potxoloa zara. Noiz arte esperatu behar dizudala uste duzu? Maider.

• **Aintzane**, Andrea eta Maria: Ezagutu ditudan lagunetan jator eta politenak zarete. Muxu bat eta goraintzi aunitz. Ainhoa.

• **Etxalarko** Patxi eta bere lagun batentzat. Garagardoa hagitz txarra da gibelarentzat. Kasu egin, bestela medikuaren bisitak garestiak izanen dira. Ikus arte. Sarako neska baten partez.

• **Jose Mari** (Isponda): zu zara Sunbillako mutilik ederrena. Zure begiak oso distiratsuak dira. Muxu haundi bat zure ezpain goxoetan. Ea noiz ikusten garen elkar! Mugi zaitetz!

• **Karlos**, hori da zure izena ez! Zure ondotik pasatu nintzen igande batean baina ez nintzen ausartu zurekin hizketan hastea. Saia zaitetz zu. Alice.

• **Virginia** Zabaleta, Amaia eta Maitane Peñarentzat: lehen bezain majak segi dezatela. GEMG Leitza.

• **Arraiozko** Aña Lidiari: horrela segitzen baduzu zutaz maiteminduko naiz. Xixare.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZIETA IGORRIGURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua:

.....

.....

.....

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

ttipi-ttapa ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK

HELBIDEA

HERRIA

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188



CRISTALERIA VELATE


IRUGLASS
S.L.

Hilabete honetako eskeintza

% 20aren deskuentoa zeure neurriko ate korrederodun armarioetan.

**DEITU ETA NEURTZERA
JOANEN GARA**

GEUK EGITEN DITUGU



- ✓ Eraikuntzak kristalezatzea
- ✓ Instalazio komertzialak
- ✓ Climalit beira edo kristal isolatzailea (aislantea)
- ✓ Kristalera artistikoak
- ✓ Mural ispiluak

- ✓ Grabatuak beira eta marmol gainean
- ✓ Etxe barneko dekorazioa
- ✓ Bainurako mobleak
- ✓ Bainurako manparak
- ✓ Ate korrederak ispiluarekin

TAILERRAK: Sakanpea karrika, 18. nabea - **ANTSOAIN**. Tfnoa: 13 02 41

DELEGAZIOAK:

ELIZONDO

Pedro Axular karrika, 1
Tfnoa: 58 08 25

DONEZTEBE

Merkaderes karrika 5
Tfnoa: 450 991

IRUÑEA

□ Ermitagaina karrika 27
Tfnoa: 17 72 78

□ Billaba etorbidea
Tfnoa: 13 20 21

DONOSTIA

Segundo Izpizua 28
Tfnoa: (943) 27 02 51

AMAIUR


sukalde eta
bainu
altzariak

Rosa Seminario 13
Tfnoa.: (948) 45 04 00
DONEZTEBE

Vegasa[®]



ALMACENES ETXANIZ, S.A.



Lesakako
Iturria anaiak



Irunen, zure bainurako
behar dituzun osagarri
guziak: griferiak,
manparak, mobleak,
gres eta zeramikak

Juan Arana, 3

Tfnoa: (943)

61 17 67

IRUN